

## **PASAIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, PASAIKO BERDINTASUN MAHAIAREN BABESAREKIN**

Emakumeek jasaten ditugun eraso sexista eta sexualen aurka Pasaiko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Antxoko Bekoz Beko eta Harremantxo emakume taldeek gaurko, uztailak 4, 19:30etan Gure Zumardian egindako deialdiarekin bat egiten dugu eta herritarrak ere parte hartzera animatzen ditugu.
- 
- Erasotatutako emakume, euren senide eta lagunei elkartasun osoa adierazi. Udalak gure babes osoa helarazi nahi diegu.
- Pasaiko herritarrei:
- Biolentzia matxista gure gizartean oso errotuta dagoen gaitza da eta zoritxarrez, ez da gure herrian soilik gertatzen den fenomeno, arazoa gizartean dago. Horregatik, prebentzioa eta sentsibilizazioari helduz guztion artean biolentzia matxistarik gabeko gizarte eredugarri bat lortzerako bidean, aurtengo Pasaiko festetan eraso sexista edo sexualen aurrean jarduteko protokoloa banatu da taberna, txosna eta jai batzordetan. Horrekin batera txarteltxoak ere banatuko dira herritarren artean honako lemarekin “Eraso bat ikusi, entzun edo jasaten baduzu , ERANTZUN!” eta jarrera hauen aurrean nola jokatzeko irizpide batzuekin.